



AIARALDEKO EUSKALGINTZA

KONTSEILUA



Duela lau urte hemen elkartu genituen Aiaraldeko Udal Hauteskundeetako alkategaiak. Udaletatik hizkuntza eskubideak eta euskararen biziberritzea bultzatzeko konpromisoak hartzera deitu genituen. Lau urte geroago, zertan dira konpromiso horiek?

Konpromisoen jarraipena egiteko, elkarlana sutatzeko, alderdikeriak saihestu eta euskararen normalkuntzan udaletxeetatik aurrera pausuak bultzatzeko, udal bakoitzean jarraipen mahaiak eratu genituen. Herritik herrira, emaitzak oso ezberdinak izan dira, baita dinamikarekiko atxikimendua ere. Batzuk konpromisoak hartu izana ere zalantzan jarri dute! Gaur, hau guztia publiko egiten dugu. *Bai We Can* 2019-2023 txostenean jaso dugu informazio guztia eta gure webgunean eskegiko dugu.

Dinamika honen balioaz konbentzituta gaude, oztopoak oztopo. Horregatik egindako bidean sakontzeko borondatez 2023-2027 legegintzaldirako gaur publiko egiten dugun konpromiso sorta berri bat helaraziko diegu hautagaiei. Hizkuntza eskubideak oinarri, elkarlana lanabes, dinamikarekiko ezinbesteko atxikimendua eta konkrituak, neurgarriak eta lorgarriak izan daitezkeen konpromisoak dira osagaiak. Hurrengo asteetan alkategaiei aurkeztu eta sinatzera gonbidatuko ditugu. Gardentasunez, hartutako konpromisoak publiko egingo ditugu.

Duela lau urte, Saraubeko mahaian, alkategaiek izan zuten protagonismoa. Gaur berriz, gurea da hitza. Alkategaiei eskatzen diegu euskararen normalizazioa bultzatzeko konpromisoak har ditzatela. Hizkuntza eskubideak bete daitezela aldarrikatzen dugu. Eta udal instituzioei euskalgintzarekin elkarlanean jarduteko galdegiten diegu.

Hizkuntza eskubideen errespetuan eta euskararen normalizazioan, aurrera egin dezagun!

Sarauben (Aiara), 2023ko maiatzaren 3an